

AURREKONTUAK ▶

Udalak 2005. urteko aurrekontu orokorrak onartu ditu plenoan

Oianguren aterpetxea eta lur sailak ustiatzeko 40 urterako kontzesioa eta akordio proiektua aho batez onetsi dute



Aurrekontuak onartu zituzten unean atzo, Ordiziako udaldebako pleno aretoan. MAIDER DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

Udalak 2005. urteko aurrekontuak onartu zituen, atzo, EAJ-EA koalizioaren botoekin. PSE/EE alderdiak aurrekontuen aurka bozkatu zuen, eta Ordiziarrak Gera plataformak Udalaren gestioaz balorazioa

egin zuen, aurrekontuen aurreko euren jarrera agertuz.

Atzoko osoko Udalbiltzan aurrekontuez gain beste hainbat gai ere onartu zituzten: 2005erako lan-talde orokorra, lanpostuen zerrenda, hilerian ehorzketak eta gorpuk hilobitrik ateratzeko lanen kontratuen

esleipena eta Majori kiroldegiaren erantzun mugatuko sozietatea eratzea, hango batzar nagusia eta kontseilariak indatuz.

2005. urterako aurrekontua 19.389.914 eurokoa da. Besteak beste, San Jose egoitzaren 2.050.990 euroko diru pol-

tsa jasotzen du. «Zifra oso altua» dela eta «zaharren egoitzaren egoera ikusita aurreikuspen handienarekin» jokatu dutela esan zuen, atzo, Alejandro Iturrioz alkateak, eta egungo egoera hobetzeko nahia agertu zuen.

Ongizate Sailak, dena dela, kritika ugari jaso zituen oposizioaren aldetik; San Jose egoitzarekin lotuta batzuk. PSEko Iñaki Dubreuilen arabera ongizatearena «gainbehera doan arloa» da, eta momentuko arazoak ez zaie konponbiderik ematen. Etxez etxeko laguntza berrantolatzeke premia dagoela esan zuen, berriz, Ordiziarrak Gera plataformak. Hirigintzan Apellaniz auzia atzeratua doala azaldu zuten eta «ekarriko dituen galerak» aipatu zituzten.

2005ean, bestalde, Udalak hainbat diru partida bideratu ditu, hala nola, Ordiziaren 750. urteurreneko ekitaldiak, azokako produktuak saltzeko web orri batera eta gaztaren Europako kongresura.

Oianguko egitasmoa

Osoko bilkuran, atzo, aho batez onartu zen Oianguren aterpetxea eta hango lur sailak ustiatzeko kontzesioaren esleipena.

Berrogei urterako kontzesioa jasotzen du akordio proiektuak; Ikena 2001 SL enpresari eman zaio. Enpresa horrek egin behar diren obrak egiteko gehienez bi urteko epea dauka. Kontzesioa ustiatuko duen enpresa sortu gabe dago oraindik (Ikengu SL sozietatea izango da). Gehienez sei hilabeteko epean eratu beharko dute.

Plan berezia onartu aurretiko obrei ekiteko akordio proiektuan hitzez hitz honako hau jasotzen da: «Gaur egungo etxea berritzeko obrak egiteko baimena eman daiteke, baina 60 metro karratu izango da gehien handitzeko neurria, indarrean dauden Arau Subsidi-

AURREKONTUAK ▶

Denera 2005. urterako aurrekontua 19.389.914 eurokoa da. Atzo onartu zuten Ordiziako udaldebako aretoan osoko bilkuran.

DIRU PARTIDAK

- ▶ **San Jose egoitza.** 2.050.990 euro.
- ▶ **Herri Antzokia.** 268.370 euro.
- ▶ **Majori kiroldegia.** 851.028 euro.
- ▶ **Ordizia Lantzen S.A.** 3.567.878 euro.

diarioen arabera, eta gaur egungo erabilera ez dela aldatzen ulertuta». Egitea pentsatzen den gainerako obra eta instalazioek Plan Bereziaren behin-betiko onarpena beharko dute. Udalak atzo jakitera eman zuenez jarritako epearen barruan eskaintza bakarra jaso da, Ikena 2001 SL enpresarena; baldintzak betetzen dituen hari eman zaio ustiapen baimena.

Udalbatzak, bestalde, ez zuen onartu Ordiziarrak Gerak egindako proposamena, euskal preso politikoaren senideei diru laguntza ematekoa.

Moziok bozkatu gabe

Ordiziarrak Gera plataformak plenora eramandako hiru idatziak Udalbatzak ez zituen moziok gisara jaso gai zerrendan. Hala, ez zuten moziok izaera izan eta ez zituzten bozkatu. Hiru idatzi ziren: Jarrai-Haika-Segi auziarena, euskal presoaren izaera politikoaren ingurukoa, eta AHTri buruzkoa, azkena.

Lehenengoan «gazteria kriminalizatzeke saio» gisa jotzen ziren epaiketak. Bigarrenak Euskal Preso Politikoaren Kolektiboaren izaera politikoa aldarrikatzen zuen, gatazkaren konponbidean. Azken idatziak AHT gelditzeko eskatzen zuen.

Egitasmoa berraztertzea eta kontsulta eskatu dute

Luze eztabaidatu zen Oianguko egitasmoaz atzoko Udalbatza plenoan. Iritzi ezberdinak plazaratu ziren. Herritar talde batek, ordea, akordio proiektuaren beraren legezotasuna jarri zuen zalantzan. Espazio irekiak itxia ere ez dute begi onez ikusi: «Herritar orok modu publiko eta irekian gozatzeko den espazio bat nolabait ere pribatizatu egiten da». Kexu agertu ziren, eta «desinformazioa» salatu zuten: «Herritarro informazioak ez zaigu eman. Kaleko jendeak ez daki

zer den proiektu hau». Egitasmoa berraztertzea eskatu zuten: «Ekar ditzagun behar diren teknikoak eta ikus dezatela bideragarria den ala ez». Erantzun zientenez, teknikoek egin dute jada lan hori. Akordio proiektua legezkoa dela azaldu zuten. Herritar batek bozketa bertan behera utzi eta herri kontsulta bat proposatu zuen, ordiziarrek gaiaren inguruan duten iritzia jakiteko. Ez zuten aintzat hartu proposamena.

Oianguko bizilagunak



Oianguko egitasmoaz herri kontsulta eskatu zuten atzo. GOIERRITARRA

udaldebako aretoan izan ziren, atzo. Hasserrea agertu zuten, haien arabera «informazioak eman ez zaielako»: «Egitasmoak geuri eragin diezagukeen neurrian jakin beharko genukeen gaur hemen zer onartu nahi duen. Baina inork ez digu esan. Kalean enteratu gara». Oianguko bizilagunak aretotik irten egin ziren Udalbatzak aho batez akordio proiektua onartu zuenean.

Udalbatzak ordezkariei arabera, proiektuak Oiangura «indartu» egingo du. Herritarrentzako eta kanpokoentzako «aisigune erakaragarria» izango dela esan zuten. ◀

ORDIZIA ▶ GIZARTEA

«Oiangu pribatizatzearen alde al daude ordiziarrak?» galdetu du herritar talde batek

Jendeari Oianguko egitasmoaz duen iritzia galdetu diote; bestalde, plataforma ireki bat sortzeko nahia agertu dute herritarren parte-hartzea bultzatzeko



Oianguko egitasmoaren legezkotasuna zalantzan jartzeko arrazoiak daudela esan zuten, atzo. M. DEL OLMO

MAIDER DEL OLMO

«Oiangu publikoa: guztiona eta guztiontzat» aldarrikatuz, atzo, herritar talde batek, Oianguko proiektua bertan behera uztea eskatu zuen. «Utzikeria» leporatu zioten Udalari; haien esanetan, «usteltzen utzi du Oiangu azken urteotan eta ez zaio behar bezalako probetxurik atera. Orain, ordea, erabilera osoago bat emateko aitzakiapean beste enpresa pribatu bati eman dio haren esplotazio eskubidea». Egoera horren aurrean plataforma ireki bat sortzeko nahia agertu dute. Helburua herritarren parte-

iragarki laburrak ▶

LANPOSTUAK

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar dugu astebukaeratarako.
943 88 00 15.

Zute ileapaindegia.

Esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera: 10:00-18:00etara; larunbatetan 9:00-14:00etara.
Telefonoa: 943 67 19 34.

hartzea bultzatu eta Oianguren erabilera publikoa aldarrikatzea da.

«Kontzesioa jaso duen enpresak aurkeztutako egitasmoaren ardatza golf zelai bat egitea da», esan zuten. Golf zelaia-
ren eraikuntzak lurren 3/4ak bereganatuko dituela esan zuten atzo. Bestalde, aurreikusten denez, egungo baserria hotel eta jatetxe bihurtuko lukete. «Eraikin berria eraiki nahi

dute, gainera». Taberna funtzioa betetzeko eta *paint-ball* jolaserako eremu bat egokitzea ere jasotzen du egitasmoak. Horregatik, erabilera libre-rako eta merienda-lekurako espazioa «izugarri murriztuko» dela esan du herritar talde horrek.

Proiektuaren legezkotasuna eta interesa zalantzan jarri ditu Ordiziarrak Gerak: «Baliteke ikuspegi juridiko batetik legez-



ANE OTEGI
ORDIZIARRA

«Herria aisirako leku zoragarri bat galtzeko zorian dago ezer egiten ez badugu, eta jendeak ez daki ezer honetaz»

koa ez izatea eta gainera Udalak prebarikazioz jokatu izana. Ikuspegi politikotik, berriz, salatu nahi dugu ezkutuan eraman dutela dena eta herritarrei ez zaiela informaziorik eman».

Oianguko lurak ustiatzeko 40 urteko kontzesioa Ikena enpresari eman diote aste honetan. Baina ez da Ikena izango kontzesio horretaz arduratuko dena, geroago sortuko den Ikengu enpresa baizik: «Lehiaketan parte hartu ez duen eta oraindik esistitzen ez den Ikenari emango dizkio. Baina lehiaketan Ikenak irabazi du kontzesioaren esplotazioa, ez Ikenaguk. Eta Ikenak ez du irabazi obren adjudikaziorik».

Egin beharreko obrek 1,8 milioi gorako aurrekontua du-

tela jakinarazi dute. Mailegua lortzeko abala ez duela ez Ikenak ez Ikengu enpresak jartzen esan zuten: «Kontzesioa bera omen da hipotekatuko dena. Azken batean, Udalak berak abalatu beharko du egitasmo pribatua. Zer gertatuko litzateke, esaterako, asmoak porrot egingo balu eta Ikengu desagertuko balitz? Ikenak ez lioke aurre egingo egoerari».

Ondorio ugari

Golf zelaia hornitzeko ur kopuru handia behar dela azaldu zuten. Taldeak hainbat eskaera egin zizkion Ordiziako Udalari, Ikena enpresari eta ordiziarrak guztiei: «Hasteko, proiektua bertan behera uztea eskatzen diogu Udalari. Bere ardura izan behar da, gauza guztien gainetik, Oianguko baserri eta lurak interes publikoaren zerbitzura jartzea, bereziki behar larrienak eta ahalmen eskasak izan ditzaketentzako egokitzuz».

Herritarrei gisa honetara zuzendu zitzaizkien: «Ordiziarrei eskatu nahi diegu Udalaren funtzionamendu eskasaren aurrean ez dezatela etsipenez edo utzikieriaz jokatu. Pentsakera bateko edo beste, izan daitezela herritar aktibo, esijitu diezaizte gure agintariei gardentasuna, lana eta herritarrek parte hartzeko bidea. Ordiziarrei eskatzen diegu Oianguren erabilera publikoaren alde antolatuko diren ekimenetan eta sor daitekeen plataforman parte hartu dezatela».

Atzoko agerraldian Ane Otegi ordiziarrek hartu zuen parte, besteak beste. Oiangu Txikiko familiakoa da bera, han hazitakoa: «Herria aisirako leku zoragarri bat galtzeko zorian dago ezer egiten ez badugu lehenbailehen, eta jendeak ez daki ezer honetaz. Entsalada eta tortila patatarekin joan izan gara Oiangura egun pasa. Orain 30 euro ordaintzea nahi dute hara joateko».

GOIERRI ▶ AZPIEGITURAK

AHTren ibilbideko Ordizia eta Itsasondo arteko tunelak 3 kilometro izango ditu

Jaurlaritzak atzo jakinarazi zuenez 54'9 milioi euroko aurrekontua du

M. DEL OLMO

Hiru kilometro izango ditu kask Ordizia eta Itsasondo artean egin nahi duten tunelak. Beseaingo mugatik Erredensorora bitartekoa izango da.

AHTren ibilbide horrek 2.860 metro ditu. Eusko Jaurlaritzako datuen arabera tunelak 2.824 metro izango ditu. Bestalde, aurrekontua 54,9 milioi eurokoa da. Hogeita hamaika hilabeterako epea izango da eraikitze

obrak egiteko. Eusko Jaurlaritzan atzo esan zutenaz, Euskal Y «oso garrantzitsua» izango da garapenerako. 2010. urterako egitasmo amaítua egotea espero dutela berretsi zuten atzo.



Itsasondo, irudian. A. APALATEGI